

PLENO BEREZIA GAUR

Puig-eko Protekzio Ofizialeko etxeetan sartzeko 'baseak' gaur erabaki daitezke

■ Baseak onartzen badira, gutxi barru zabalduko da etxeetan apuntatzeko epea.



Han barrenean, Antziola Berrikoen segidan egiten ari diren etxeak dira protekzio ofizialekoak.

UDALAK pleno berezia egingo du gaur arratsaldean. Puntu garrantzitsuenetako bat Puig-eko zonan egiten hasi diren Babes Ofizialeko etxeetan sartzeko baseak izango dira.

Puig-eko zona Antziolako rektan dago, Zinkoeneatik *Cuesta de la muerte* baino lehenagoko tartean. Hor, Babes Ofizialeko 36 etxe bizitza egingo dira: 6 etxe 80 metro eta 6 logela dituztenak; 24 etxe 60-70 metro eta 2 logelakoak; eta, beste 6, 40-60 metro eta logela bakarrekoak. Guztiek trasteroa eta garajea izango dute.

Etxeak udalak bultzatuta egingo dira; eta 36ak dira hernaniarrentzat. Dirutan, 54.000-96.000 euro (9-16 miloi pta) + BEZ (IVA) inguru ibiliko dira, garaje eta guzti. 2003ko apirilera bukatuko dira

BASEAK

Plenoak eztabaidatuko dituen

baseak Hirigintza batzordetik datoz. Laburtuta, hauetxek dira proposamen batzuk:

1) Pertsona bakarra ere sartu liteke Babes Ofizialeko etxeetan, familia, bikote eta gainerakoak bezalaxe. Gainera, pertsona bakarra bizitzeko moduko 6 etxe egingo dituzte.
2) Elkarrekin bizi behar duten etxe eskaera bakarra egiten badute, etxea bien izenean jarriko da. Bikoteko edo familiarako bakoitzak berea egiten badu (sorteoa aukera gehiago edukitzeko, adibidez), orduan etxea egokitzen zaionaren izenean eskrituratuko da.

Eskaera nolakoa izan, halako etxeetako sorteoa sartuko dira. Alegia, pertsona bakarra bizitzeko eskaera bada, pertsona bakarrarentzako etxeen sorteoa; 2-4 pertsona bizitzeko bada, bi logelako etxeenean; eta 4 pertsona baino gehiagok bizi behar

badute sei etxe haundienen sorteoa.

Elbarritasunen bat duten pertsonak, berriz, sorteo berezi batean sartuko dira.

3) Babes Ofizialeko etxeen zozketan sartzekotan, azken bi urteotan etxe propiorik gabea izan behar du. Hala ere, puntu horretan badaude salbuespenak.

4) 33.055,67-9.015,18 euro arteko ingesoak behar dira (5.500.000-1.500.000 pta)

5) Eskatzen duenetako batek behintzat Hernanin enpadronatua behar du.

APUNTATZEKO

Baseak onartzen direnean, egunkarietan aterako dira anuntzioak. Azkenengo anuntzioa ateratzen denetik, hilabeteko epea dago eta udaletxean bertan apuntatu behar da. Gero etorriko dira, onartutakoen lista, sorteoa eta abar. □

Osiñagako auzo elkarteak bilera du igandean

■ Auzo elkartearen urteko lana erabakiko da ■ Zuzendaritza berrituko dute ■ Arriatsun 12:00etan.

OSIÑAGAKO auzo elkarteak igandean egingo du urteko aurreneko bilera. Bilera hori garrantzitsua izaten da, hor erabakitzen delako urte osoko martxa. Gainera, aurten zuzendaritzan aldaketak etorriko dira eta horrek ere aparteko garrantzia ematen dio bilerari, auzo elkarteak kaleratu duen prentsa oharraren arabera.

AUZOKO ARAZOAK

Auzo elkartearen bilerak hiru puntu nagusi izango ditu eta aurrenekoa auzoko arazoei buruzkoa da: Zikuñagak sortzen duen soina dela-eta, Osiñagan ingurugiro teknika-riaren erantzunaren zai daude. Horrez gain, bideekin ere badituzte gora-beherak eta horiek ere hitz egingo dituzte bil-

eran: *Munttoko* bidea, Arriatsuko bidea, bide garbiketak eta zenbait etxe ondota euri urekin sortzen diren arazoak azalduko dira.

JAI BATZORDEA SORTU

Arazoak nola konpondu aztertzeaz gain, auzo elkartearen urteko funtzionamendua ere lotuta utzi nahi dute bileran.

Batetik, Auzo elkartearen zuzendaritza batzordean "lagun eta indar berriak" behar direla dio prentsa oharrak. Bestetik, 2002ko auzoko festak antolatzeke jai batzordea sortzea proposatuko da eta urtean zer kultur ekintza egin ere plan-teatuko da.

Bestalde, datozen hilabeteetarako lan eta bilera egutegia ere erabakiko dute. □

■ ATLETISMOA

Ixiar Urdangarin Gipuzkoako txapelkun krossean

■ Karreran, hernaniarra bigarren sartu zen, Flora Kandie keniarraren atzetik. □

IXIAR Urdangarin korrikalari hernaniarra beste erakustaldi bat eman eta Gipuzkoako kross txapelkun gelditu da. Karrera igandean jokatu zen Oñatin. Irabazlea Flora Kandie keniarra izan zen 22'20" denbora eginda. Urdangarinek karreran bigarren eta gipuzkoarretan aurrea egin zuen, 23'53" denbora eginda. Amaia Insausti hirugarrenari 6 segundu atera zizkion.

Itziar Urdangarin *Goierr* taldean dabil denboraldi honetan. Gipuzkoako txapela irabazteaz gain, Behobian zazpi-garren egin zuen eta Donostia-ko Maratoi txikia irabazi.

GAZTEAK FUERTE

Bestalde, beste kategoriatan ere hernaniarrak fin ibili ziren. Alebinetan, Eider Aldabek 4garren egin zuen; infantiletan, Mikel Olabidek 9garren; Kadeteetan, Jurgi Blancok 3garren; eta Jubeniletan, Aritz Irazuk 5garren. □

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Egunero menuak.
Afariak enkarguz.
Ostiraletan mus txapelketa.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97



LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia
Ereñotzu - Hernani
Tel. 943 55 58 46



GALARRETA
FRONTOIA
Gaur binakako txapelketako partidua:
EZKURRA-URKO / ALTUNA II-ETXABE



GAUR ARRATSALDEKO 16:00 ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: ZEBERIO-LANDER / MATXIN III-ASTIBIA
2. partidua: EZKURRA-URKO / ALTUNA II-ETXABE -Txapelketakoa-
3. partidua: ZEBERIO II-TXIKURI / ALTUNA I-AIZPURU
4. partidua: IRIBARREN-EKIZA / SARASUA-BADIOLA

Bihar zabalduko dugu txotx denboraldia.

Zatoz lehenengo sagardo tragoak egitera!

Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

Udal gobernua eta 3/4 plataformak Xabier Arnaiz preso libre uzteko eskatu dute

■ Karta bat bidali diote Ocaña I kartzelako zuzendariari ■ Kartak dioenez, Xabier Arnaizek etxean behar zuen duela ia 2 urte eta erdi.

UDAL gobernua eta 3/4 herri ekimenak Xabier Arnaiz preso hernaniarra baldintzapean libre uzteko eskatu diote Ocaña I-eko zuzendariari. 3/4 plataformak adierazi digunez, 2001eko maiatzean kartzela zuzendariarekin bilera egin zuten. Zuzendariak ofizialki jakin arazi zien Arnaizek 1999ko maiatzaren 23an bete zituela kondena hiru laurdenak. Orain, Ocaña I-eko zuzendariari bidalitako kartan esaten denez, 9 hilabete pasa dira Arnaizen egoerari buruz hitz egiteko egindako bilera hartatik, eta harrezkeroztik ez da ezer aldatu. Azken hilabeteetan, plataformako kideak kartzela zuzendariarekin bildu nahian ibili dira, baina, erantzun bakarria zuzendaria ez zegoela izan omen da.

KRITERIO ARBITRARIOAK

Udal gobernu eta 3/4 plataformaren ustez, oso-oso grabea da legea interpretatu eta aplikatzeko kriterio arbitrarioak erabili eta, Arnaiz kartzelan eduki ez ezik, bere benetako kondena luzatzea.

REDENTZIOAK

Kartzelako zuzendariari eskatu diotena da: **bat)** Xabier Arnaizi eman diezazkiola dagozkion kondena redentzioak (murrizketak); tokatu bai baina oraindik eman ez zaizkion redentzio normal eta bereziak. **Eta bi)** utzi dezala baldintzapean libre, Konstituzioaren 25 artikulua, kode penalaren 90 garren artikulua eta kartzela legeak berak agintzen duen bezalaxe.

HERNANIKO LAU PRESO EGOERA BEREAN

Hernaniko beste hiru preso daude zigorraren hiru laurdenak beteta oraindik kartzelan: Joxan Pagola, Kepa Aira eta Pakito Lujanbio. 3/4 plataformaren ustez, denei arbitrarioki aplikatzen zaizkie, bai redentzioak eta baita Kode Penalaren 90garren artikulua ere. "Horrek esan nahi du irregulartasunak ez direla kartzela bakoitzeko zuzendariaren seta, sistematikoki aplikatu eta kartzela sistemaren ezaugarria direla baikiz" dio plataformak.

KONTZENTRAZIOA GAUR

Hamabostero bezala, 3/4 plataformak kontzentrazioa egingo du Pagola, Arnaiz, Aira eta Lujanbioren askatasuna eskatzeko. Plaza Berrian, gaur 19:00etan.

PELOTA

Oiaga eta Esnalek partidua Hernanin, ostiralean

■ Oiga-Aldazabal IV-Oar Arteta-Zubiaga, binakako txapelketako partidua ■ Esnal-Ayo, buruz buru.

OSTIRALEAN pelota jaialdia dago kiroldegian, Pelota Elkarteak antolatuta. Josu Oiagak binakako txapelketari ekingo dio, Aldazabal VIrekin pareja osatuta.

Jaialdiak bi partidua izango ditu: aurrenekoa Iñaki Esnalek eta Ayok jokatu dute, buruz buru. Bihar, 22:30etan. □



Josu Oiaga pelotaria.

BERTSOLARITZA

Tabernetako txapelketa bihar

■ Ostiralean jokatu du VIIIgarren *Tabernetako Bertsolari txapelketa*. Bertsolaritza ez dira plazak bakarrik, ezta Belodromoa ere. Tabernetako txapelketak sekulako espektazioa sortzen du eta izugarrizko giroa egoten da. Aurten arituko dira: *Xanta, Oxan, Xapo*, Barrenetxea, Aranburu eta Aizpuru; Oxan omen da faborito. 22:30etan, Garin tabernan. □

ESKOLARTEKO KIROLA - EMAITZAK



Hernani eta eskualdeko 70-80 igerilari bildu ziren kiroldegian. Argazkian Hernaniko batzuk.

GABONAK pasata, asteburuan jarri zen berriz martxan eskolarteko kirola: futbola, pelota, eskubaloia, saskibaloia.... □

FUTBOLA	TALDEAK
Infantil ant.	Urumea 5-Udaregi 8
Infantil nes.	Langile 6-Losola 6
PELOTA	TALDEAK
Infantilak	Langile A 5-Udaregi A 1

SASKIBALOIA	TALDEAK
Infantilak	Langile 38-Auzara BEH B 95
Alebinak nes.	Urumea 38-Losola A 26
Alebinak. Mnt.	Langile B 47-Herrera 92
Alebinak nes.	Elizatxo 20-Belen B 0
Alebinak nes.	Langile 95-Oruze 12
Alebinak ant.	Langile A 55-Mary Ward A 18

ERREMONTEA - TXAPELKETA

Etxabe-Altuna II semifinal bila, Ezkurra-Urkoren kontra

■ Etxabe eta Altuna II-a, gaur irabazi ezta ere, 28 tanto

BINAKAKO erremonate txapelketa ari da semifinal usaia hartzen. Altuna IIa eta Etxaberentzat (Hernanin bizi den azkoitiarra), gauzak dezente itxuroso dijoazti. Bost bikote ari dira txapelketan eta lau partiduko ligila jokatzeko ari dira, denak elkarren kontra. Atuna II-Etxabek hiru jokatu eta bi irabazi dituzte. Gaur Ezkurra

eta Urkoren kontra 28 tanto egiten badituzte, galduta ere semifinaletara pasako dira.

Urko-Ezkurra txapela jazteko pareja faboritoa ziren hasieran, baina, semifinaletan sartzeko ere lanak ibiliko dituzte. Gaur derrigor irabazi egin behar dute eta azkeneko partidua ere bai, Iñigo eta Lizasoren kontra. □

HITZ BITAN

ELUR-TXORI

Mus txapelketa hirugarren fasean.

ELUR-Txori elkarteko mus txapelketa ari da azken fasean sartzen. Atzo, binakako partidua izan ziren eta gaur binakako 8 jokatu dira.

Gaurko partidua
Antxe Aierdi/Aurelio-Sanz
Apaolaza-Peli/Ruso-Carlos
Javi-Rafa/Ormazabal-Bilbao
Joxe-Manolo/Diego-Antonio
Gaztañaga-Olegi/Polo-Txepi
Marinez-Sanz/Zubillaga-Marinez
Sanz-Valle/Jokin-J.Bautista
Xabier-Quijera/Uzkudun-x

OSASUNA

Bizitzaren medikalizazioaz hitz egingo dute gaur, Biterin. Sumendi elkarteak nor bere burua nola zaindu ikastea hitzaldi zikloa ematen ari da, Biterin. Gaur bizitzaren medikalizazioa izango dute gaia. Hitzaldia 19:00etan hasiko da.

MENDIRIZ MENDI

Mendiko material azoka, bihar arte. Urtero bezala, Mendiriz Mendik aurtan ere jarri du bigarren eskuko mendiko materialaren azoka. Astelehena ezkerotik dago zabalik eta ostiral honetan bukatzen da. Azoka lokalean bertan dago, (Iturregi plaza, z/g). Ordutegia: 19:30etatik-21:30etara.

BITERI

Argazki ikastaroa. Biterik argazkilaritzan sakontzeko 36 orduko ikastaroa egingo du otsailtik aurrera. Matrikulatzeko epea urtarilaren 21etik 25era izango da.

SAN JOAN KONPARTSA

Euskal dantza ikastaroa larunbatean. San Joan Konpartsak euskal dantza ikastaroa antolatu du. Fandangoak, arinarinak, mutil-dantzak, mutxikoak eta abar ikasi nahi dituenak dijoala larunbat goizean 11:30etan Biterira.

GALDUTAKOAK

Mendiko bi bastoi, makila eta artzai txakurra galdu dira. Urte Berri egunean Zinkoeneko iturrian mendiko bi bastoi (elurretako horietakoak) eta balore sentimental handiko makila gelditu ziren. Ezeren berririk duenak: 943-550136/555914.

Bestalde Santa Barbara bidean, artzai txakurra galdu zen Saretxo inguruan. Artzai txakurra sei hilabetekoa da, txuri-horixka. Ikusi duenak deitu: 943-556017/554616. □

HERIOTZAK

Arantxa Arregi Ormaetxea
Astelehenean hil zen 46 urte zituela

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Eguzki taldeko Gari Plazaolarekin, Hernani aldean egitekoa omen duten errasgailuari buruz 12:30: Daniel Peral. Biteriko erakusketa 22:00etan: Magazin musikalean Loud&Lone Reggae taldeari elkarriketa.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
▶ Taxiak: 943 550093	▶ Egunez: Etxebeste Elkano 2
▶ Udaltzaingoa: 943 333288	☎ 943 552087
▶ DYA: 943 464622	▶ Gaez: De Miguel
▶ Autobusak: 943 556662	Lasarte. Nagusia 32
▶ Anbulatorioa: 943 557750	☎ 943 361556
▶ Jokalari anonimoak 943 331103	